

Aiherra



Ezkerretik eskuinera: URRUTY Mirentxu, URRUTY Maider, DURRUTY Kattin eta LANDAGARAY Mirentxu.

**Neskak pilotan txapeldun:
aupa Kattin eta Mirentxu!**

Joan den igande goizean, palantxa pilota gomarekin ari diren Kattin Durruty eta Mirentxu Landagaray Abarratia pilota batasunekoak finalean genituen, Lekorneko trinketean helduen Euskal Herriko txapelketaren kondu (iparraldeko Pilota batzordeak antolatua), hirugarren mailan Denek Bateko parearen aurka, hau Mirentxu URRUTY eta Maider URRUTY andereek osatzen zutena. Sason ederra eginik, finala ere airez aire eraman zuten 40 eta 12 nagusitu baitira. Biba zuek eta segi aitzina!

Un titre pour Abarratia !



Mirentxu Urruty, Maider Urruty, Kattin Durruty et Mirentxu Landagaray

Le dimanche 9 décembre dernier, au trinquet de Mendionde, Kattin Durruty et Mirentxu Landagaray, sociétaires du club de pelote Abarratia (Ayherre-Isturitz-Saint-Esteben), ont remporté la finale palelta gomme pleine féminine de troisième série du championnat du Pays Basque en battant l'équipe de Denek Bat sur le score de 40 à 12. Bravo à elles !

BERRIXKA

16.12.2018